



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

Beckham

NETFLIX

Aitortuko dizuet zerbait arina, ikuserraza eta tontoa ikusteko gogoz sakatu niola urrutikoa-ren *play* botoiari. Auzo-lotsa pasatzeko prest ikusten nuen neure burua –"Georgina" era-ko zerbait espero nuen–, baina zoritxarrez ez da horrela izan. Ez ikaratu, kasu honetan "zoritxarrez" hitza argumentu positibo gisa baliatuko dut, David Beckham futbolari ezagunaren bizitzan oinarritzen den lan hau oso interesgarria eta txukuna iruditu zaidalako; ez da espero nuena, onerako harritu nau.

Manchester United taldean futbolearen jokatzeko hasi zene-tik gaur egun arte zehaztasunez azaltzen du guztia, baina ez da soilik kirolean zentratzen: haurtzarora, bizitza pertsonala, ospearen argi-ilunak, eskandalo mediatikoak eta, jakina, Victoria emaztearekin duen erlazioa ere azpimarratzen dira –ziur zuk ere ikusi duzula hain birala egin den Rolls-Royce-aren bideo hori–.

Narrazioa, nagusiki, artxibo irudi eta elkarrizketekin egituratu dute –zentzu horretan atalak apur bat luzeak iruditu zaizkit–. Narratzaile horietako bat Beckham bera zela ikusi nuenean, bere burua zuritze-ko helburuz egindako ikus-entzunezkoa espero nuen, baina ez zait hala iruditu, ez baitu inongo unetan saihesten bizitzan izan dituen pasarte korapilatsuenak; hala nola izan zuen depresioa eta Victoriarekin izandako harremana astindu zuten salaketa eskandalagarriak.

«Beckham» fenomenoa eta kirol-dokumentalak

Kirol-dokumentalena AEBetako zinemagileek sarritan jorratu duten generoa izan da; fikzioetan zein dokumentaletan, nekatzeraino ikusi ditugu hotsandiko gainditze-istorioak. Azken asteotan guztion ahotan dabilena, ordea, Ingalaterratik datorren telesail-dokumental bat da: «Beckham». Lan horren inguruan sortu den harrabotsa aztertzeaz gain, kirol-dokumental nabarmen batzuen errepasoa egingo dut, geurean egin diren batzuk barne.

Oro har proposamen nahiko zuria den arren, ospearen eta aberastasunaren alderdi gordinean ere sakontzen du, baita, azaletik bada ere, garun osasunaren gaian ere. Portzierto, bitxikeria modura, lanaren zuzendaria eta dokumentalean zehar elkarrizketak egiten ikusten dugun pertsona Fisher Stevens aktore ezaguna da, "Succession" telesailleko Hugo Baker.

Free Solo

DISNEY+

Alex Honnold-en balentria azaltzen duen dokumentala, Yosemiteko Parke Nazionalan dagoen "El Capitan" harrizko egitura bertikala inolako laguntza osagarririk gabe igo zuen eskalatzailerak. Lan honen alderdirik onena da ez dela soilik eskalatzeko une hori erakustera mugatzen; zuzen-



dariak muturreko egoerekiko obsesio hori ulertzen saiatzen baitira.

"El Capitan" tontorra igotzeko une hori filmatzea, zinemagile gisa, erronka handiko unea iruditzen zait. Izan ere, kamera bat une oro grabatzen aritzeak Alex Honnold-engan eragin zezakeen presioa azpimarratzen baitu filmak. Gainera, zinemagilea, erabat beldurgarria den egoera baten aurrean kokatzen du: pertsona baten heriotza posiblea grabatzen ari dela jakitea.

Eskalatzaileraren biografia gisa ere baliagarria iruditu zait oso, haren haurtzarora eta nerabezarora ezagutzera iristen baikara, eta, hala, Honnold-en izaeraren zirrikituak hobeto ezagutzen ditugu.

Jai Alai Blues

PRIMERAN

«'Pitbull' abeslaria, World Jai Alai League Miamiko zestapuntako ligako akziodun berria». Azken egunotako albiste horrek Gorka Bilbao bizkaitarraren "Jai Alai Blues" dokumentala berrikustera bultzatu




nau. Zesta-puntaren historia-
ren inguruko lana den arren,
gai hori azaltzen dituen beste
hainbat istorioren abiapuntua
besterik ez da. Mende hasiera-
tik, enpresaburuek jokoaren
eta apustuaren arrakastaz no-
la baliatu diren ere azaltzen
du, eta kirola, nazioartean, os-
petsu izatera nola iritsi den.

Egipto, Txina, Filipinak, Ku-
ba, Mexiko eta Estatu Batuak
dira Jai Alairen historiako
agertokietako batzuk. Leku
horietan guztietan, pilotariak
benetako artistatzat hartu zi-
ren, eta komunikabideek luze
eta zabal jorratzen zuten pilo-
talekuen jarduera.

Baina urrezko urteen disti-
rak ez zuen betiko iraun eta
lan honek ere hori erakusten
du. Goi mailako negozio
bihurtzearekin batera, jokalaria
eta enpresariaren arteko iskan-
bilak sortu ziren. Horiek izan
ziren, hain zuzen ere, kirol ho-
nen beherakadaren abiapun-
tua. Zesta-puntaren hastape-
nak, urrezko garaia eta
gainbeheraren arrazoiak sa-
konki aztertzen dira. Aparta.

The Last Dance
NETFLIX

90eko hamarkadako bigarren
zatiko Chicago Bulls historiako
kirol talderik onenetakoa izan
zela diote askok, eta noski Mi-
chael Jordan historiako jokala-
ririk onena. Hamar ataletan za-
tikaturiko telesail dokumental
honetan, talde horren erregeal-



diaren gaineko erradiografia
txundigarria ikusteko aukera
izango duzu. Baita, garai harta-
ko testuingurua heldulekutzat
hartuz, aldagela barruan izan
ziren tira-birak, apurka-apurka
loratzen joan ziren liskarrak
eta, jakina, botere-borrokak ere.
Erabat txundituta amaitu dut
maisulana iruditu zaidan lan
hau ikusten. Ikerketa eta doku-
mentazio lan ikaragarria eta
90eko hamarkadako NBA liga-
ko jarraitzaile ginenontzat opa-
ri nostalgiko eta zirraragarria!

**Emakumeak
plazan**
ARGIA.EUS

Lotsagarria da eta salagarria
iruditzen zait, oro har, kirol
dokumentalgintzan emakume
kirolariei eskaintzen zaien

Dena dela, edozein kirol dela
ere, partaideak emakumeak
direnean, ez du jasotzen ber-
dintasuna sustatzen duen
edozein legek exijitu beharko
lukeen parekotasunik. Ez era-
kundeen laguntzen bidetik ez-
ta komunikabideen laguntza
eta zabalkuntzarenetik ere.
Egiten ari direna eta hain gu-
txi ezagutzen den hori ezagu-
tarazi nahi izan dute.

**Pura vida.
The Ridge**
GUIDEDOC.TV

Orain dela 12 urte inguru ikusi
nuen lehen aldiz dokumental
hau eta oraindik ez dut lortu
burutik kentzea. Migueltxo
Molina eta Pablo Iraburu zine-
magileek zuzendua, Iñaki
Otxoa de Olzaren erreskate
operazioaren nondik nora-
koak azaltzen dituen lan ikara-
garria da.
Annapurnan, Himalaiako
mendirik zailenean, Iñaki
Ochoa de Olza larri, hiltzeko zo-
rian zegoela, munduaren beste
aldean martxan jarri zuten Hi-
malaian inoiz egin den erreska-
terik handiena. Lau egun luze-
tan euren laguna salbatzen
saiatu ziren hamar herrialdetatik
joandako mendizale han-
dien testigantza biltzen duen
lana da. Ezinbestekoa.





Senna

NETFLIX & HBO MAX

Ez zait automobilismoa batere gustatzen, are gehiago, gorroto dut oro har autoen mundua. Hori azalduta, Ayrton Senna 1 Formulako gidari brasildarren inguruko dokumental hau zoragarria iruditzen zait, pen-tsa, beraz, zeinen ona den.

1984an hasi zenetik hamarkada bat geroago San Marinoko Sari Nagusian hil zen arte zehaztasunez azaltzen du bere bizitza, eta horretarako, material harrigarriaz eta argitaratu gabeko irudiez baliatzen dira.

Kirol-bilakaeraz gain, pilotuaren eszena argigarriak ere erakusten dira, telebistako “show”-etakoak eta elkarrizketetakoak adibidez. Hamabost mila ordu baino gehiagoko ar-txiboko irudien artean arakatu behar izan dute muntaia lan ikargarria egiteko.

Behobia (Ehun urte hesiak iraultzen)

YOUTUBE

Behobia-Donostia lasterketa bat da, baina ez edozein lasterketa. 2019an 100 urte bete ziren lehen aldiz ospatu zenetik. Denbora horretan, aldaketa zein abentura mordoxka bizi izan ditu hainbat eta hainbarentzat urteko zita den honek. Behobiaren historian eta bertan modu ezberdinetan parte hartu dutenen istorioetan murgildu dira, helmugan baino balioa bidean jartzen duen kirol ekitaldi honek suposatzen duena azaldu asmoz.

Ordubete inguru irauten duen lan polit hau atal desberdinetan banatu dute Bira Produktzioak-ekoek: “Lehen pausoak”, “Zalantzak”, “Erronka”, “Bultzada berri bat”, “Txakalaldia”, “Hortzak Estuturik” eta



“Helmuga”. Atal horiek, zale-tua izan ala ez, korrikalaria izan ala ez, ikusle mota guztiek gozatzeko moduko erreminta oso eraginkorren bitartez batu dituzte, lasterketaren historia eta inguruan sortzen den guztia ulertzeko helburuz.

Ez nuke alor teknikoan gehiegi murgildu nahi, zeren istorioan guztia oso ongi txertatuta dago, nire ustez bete dezakeen eginkizun garrantzitsuenetarikoa burutzen du: ez dela apenas nabaritzen. Alegia, alor guztiak oso orekatuak daudela, eta ez dela inoren lana bestearen gainetik inongo momentutan jartzen.

Lasterketan parte hartu baduzu, bereziki hunkituko zaituen dokumentala da, baina hala ez bada ere ikusi, nik pertsonalki ez dut sekula parte hartu eta zirraragarria irudituko baitzait.

The Deepest Breath

NETFLIX

Egoera itogarriak pantailan ikustean oso gaizki pasatzen duen horietakoa bazara, ez ikusi dokumental hau. Kito, badaezpadako oharra emanda.

“The Deepest Breath” apneako munduko txapelduna den Alessia Zecchini-ren isto-

rio tragikoari buruzko dokumental zirraragarria da. Apnea edo urpekaritza librean aritzen den Alessia Zecchini italiarra da dokumentaleko protagonista nagusia. Kirol honen xedea erakustez gain, senitarteko eta lagunaren testigantzen bidez zein beste urpekari batzuek hartutako itsaspeko irudi harrigarrien bidez, Laura McGann zuzendariak Alessiaren istorioa azaltzen du dokumental zoragarri honetan.

Stephen Keenan irlandarra da narrazioaren beste protagonista nagusia, munduko segurtasun-laguntzaile urpekaririk onena. Alessia eta Stephenen bizitzak gurutzatu egingo dira, eta gertaera hori dokumental berezi honen mami nagusietako bat izango da. Kirol-epikaz eta unibertso horren dinamika bereziaz harago, adiskidetasuna, leialtasuna eta, batez ere, Alessia eta Stephenen arteko maitasuna direlako lan honen oinarri nagusia.

Itsaspeko planoak ederrak dira, edertasun horren azpian, ordea, arrisku handiko kirola ezkututzen da. Alderdi emozionalaz gain, muntaia eta gidioa ere bereziki zaindu dira; kritikari batzuek tranpati samarra dela aipatzen duten arren, gidoiaren egitura oso zuhurra irudituko zait, oso ondo zaindu eta neurtu baitute kontatzen den guztia eta zein ordenatan azaldu. Ederra eta beldurgarria aldi berean.

